

Duela 40 urte mendira korrika igotzea otu zitzaion. Eta gustatu. Orduan ez zuen inor korrika ikusten mendian gora eta behera. Ez zegoen horrelako lasterketarik inguruan. Handik denbora batera, 50 urterekin, izena eman zuen Zegama-Aizkorri lasterketaren bigarren edizioan. Eta beste hamar egin zituen jarraian. Aurten hamabosgarrenez korrituko du Izaban ospatzen den Camille Extreme mendi lasterketa. Irene Sarrionandia da Izabako

lasterketako edizio guztietan parte hartu duen korrikalari bakarra. Anbototik gertu sortu zen Irene Sarrionandia, Zornotzako Oromiño auzoan. Gaztea zela, Irakasle ikasketak egiten zituen garaian igo zuen lehenengoz Durangaldeko mendi tontorra. Gaur egun sarritan joaten da, eta korrika igotzen gozatzen du. Anboto eta Andutz, Pirinioak eta beste hainbat mendi hartu ditu hitzetik hortzera Deban bizi den korrikalariak. 70 urte ditu, eta gogotsu hartu gaitu Deban, Itziarrera bidean etxekoek daukaten ba-

ratzean. Mendiaz, kirolaz, osasunaz, lasterketez eta aurrera egiteko gogoaz aritu gara berarekin, eta inguruko mendiei so eginez gozatu dugu arratsalde ezin atsegina goa. Berak egunero kirola egiten du, eta osasuntsu bezain gogotsu sumatu dugu. Bere ilobak egindako “Aurrera” dokumentalean bezain gertuko, jator eta itxaropentsu sumatu dugu. **Badira 40 urte mendian korrika zabiltzala, zelan hasi zinen ba?** Izango dira, bai, 40 urte. Oso gauza naturala izan zen. Beti


«Guztira 11 ediziotan parte hartu nuen Zegama-Aizkorri lasterketan, denak jarraian. Azkenean nik erabaki nuen gehiago ez joatea. Proba heldu baino hilabete batzuk lehenago urduri jartzen hasten nintzen, ea ondo prestatuta ote nengoen...»

errepidean ibiltzen nintzen, asko. Debatik abiatuta leku guztietara joaten nintzen. Hemendik Ondarroara ere bai. Eta halako baten Itziarrera igotzen ari nintzela Andutz mendia ikusi nuen, eta nire buruari galdetu nion: zergatik ez naiz sekula Andutz mendiraino joan? Egun horretan buelta hartu beharra neukan, denbora kalkulatuta izango nuen ziurrenik, baina hurrengorako utzi nuen. Eta horrela atera nintzen etxetik, errepidetik joan beharrean beste bide batetik Andutz gailurrera joan nintzen. Sekulako deskubrimendua egin nuela iruditu zitzaidan. Harrezkero errepidea utzi eta mendiari ekin nion. Bideak ikasten hasi nintzen, nondik dagoen garbien ikasten duzu, udaberria bada eta sasiz beteta badago bide hori negurako utzi, euria ari badu beste bide batzuk topatu...

Orduan ez zen jende askorik ibiliko mendian korrika, ezta?

Ez. Nik ez daukat gogoan beste inor ikusterik hemen bertan. Denbora batera hasi nintzen entzuten bazirela lasterketak, mendian egiten zirenak. Gezurra dirudi egun hainbeste lasterketa izatea, herri guztietan egiten dira, eta modalitate ezberdinetakoak: umeekin, familia artean, bikoteka, bakarka... Egun horren gauza arrunta izanda, ezin daiteke sinetsi duela 40 urte horrelakorik ez egotea.

Are gutxiago, emakumeak. Emakumezkoak, mendian, bakarrik. Hori zer zen! Niri ere eragiten zidan zeozer. Ez beldurra neukalako, baina jendearen komentarioek ere eragiten zidaten.



Andoni CANELLADA | FOKU

«Nire adinean mendian korrika ibiltzeak bizipoza ematen dit»

Bideoan ikusi dugu 50 urterekin egin zenuela lehenengoz Zegama-Aizkorri lasterketa.

Data ez daukat gogoan, baina horrela izango da, bai. Gogoan dudana da zelan lagun batek kontatu zidan mendiko lasterketa bat egin zuela, maratoia eta Aneton. «Anetora? Eta ari-neketan gainera? Gustura egingo nuke horrelako bat nik ere, beste sasoi bat edukiko banu». 50 urte izango nituen, eta pentsatzen nuen: «50 urterekin emakume bat zelan hasiko da Anetorekin ametsetan». Inbidia ematen zidan, eta hori gustura egingo nukeela pentsatzen nuen. Hurrengo urtean, ez zuten lasterketarik egin, arazo batzuk tarteko. Eta ordukoa da Zegama-Aizkorri lasterketaren hasiera.

Lehendabiziko edizioan ez nuen parte hartu, pentsatzen nuelako nire adina ez zela egokia horretarako. Nire nebak egin zuen ordukoa, ni baino 15 urte gazteagoa denak. Eta berak argi esan zidan: «Hik hori egingon!». Senarrak ere animatu ninduen, eta proba batzuk egiten hasi ginen. Aldez aurretik lantzea erabaki genuen eta nire nebarekin Zegamara joan nintzen. Dena berdin-berdin egin gabe, ia lasterketa osoa egin genuen proba gisa. Zegamatik atera eta Oltzaurteraino, gero handik Aizkorrira ere bai, Urbiara jaitsi gero eta han kilometro batzuk egin gabe utzi, baina beste tontorrek eginaz egin genuen proba. Zeozer egin gabe ere, ondo moldatu ginen Joseba eta biok. Gustura geratu nintzen egindakorekin, eta bigarren edizioan izena eman nuen. Orduan ez zen arazorik izaten izena emateko. Heldu zen lasterketa eguna, eta sei ordu eta ho-

gei minutuan amaitu nuen proba.

Gerora hainbat urtetan egin zenuen Zegama-Aizkorri lasterketa.

Bai, hainbatetan, eta denbora beti antzekoa. Sei ordu eta hogeit hamar minutu inguru gehienetan, onena sei ordu eta hemezortzi minutu. Urte baten, oso eguraldi txarra egin zuen, elurra ere bai, elur oso txarra, eta zazpi ordu eta erdi egin nituen. Azkena sei ordu eta berrogei minutuan egin nuen.

Guztira 11 ediziotan parte hartu nuen, denak jarraian. Eta azkenean nik erabaki nuen gehiago ez joatea. Proba baino hilabete batzuk lehengo urduri jartzen hasten nintzen, ea ondo prestatuta ote nengoen, desnibela nahiko landu ote nuen, hau eta beste. Buruan buelta asko ematen nion, eta ikusten nuen oso urduri jartzen nintzela. Ez neukan horrela sufritzen egoteko beharrianik. Eta egun baten gehiago ez joatea erabaki nuen. 11 edizio egin ostean utzi nuen Zegama-Aizkorri.

Izabako Camille Extreme lasterketarekin jarraitzen duzu oraindik. Aurten hamabosgarren aldiz egingo duzu.

Izabakoa ezberdina da. Lekua asko gustatzen zait. Pinudiak ere ez dira hemengoak bezalakoak, garbiagoak dira. Larreetan ardiak ikusten dituzu. Eta asko gustatzen zait Ezkaurre mendia zelan igotzen den ere. Pagadiak ere badaude, eta niri asko gustatzen zait bertan korrika egitea. Aldapa handiak daude, sekulakoak. Bideoan ere ikusten da han nola batek animatzen nauen, “fenomena!” oihukatuta. Jen-de asko egoten da animatzen.

Itzela da. 31 kilometroko proba da, eta 2.000 metroko desnibela du. Hamalau eginda dauzkat dagoeneko, eta uste dut, ezer txarrik ez bada, aurtengoa ere amaituko dudala. Egin diren edizio guztietan parte hartu dut.

Zer ematen dizu zuri kirolak?

Kirolak osasuna ematen dit. Fisikoa eta mentala. Nire adinean mendian korrika ibiltzeak bizipoza ematen dit. Bukatzen duzunean zeinen gustura ibili naizen baloratzen dut. Lau ordu edo zortzi ordu egin ostean, nekatuta baino oso oso gustura beti. Oso pozgarria da.

Osasun aldetik ere laguntzen didala uste dut. Eliteko kirola ez dakit oso osasuntsua den, gorputzari asko eskatzen zaio. Baina nik egiten dudana oso ederra eta ona dela iruditzen zait.

Nolako prestakuntza egiten duzu zuk?

Egunero aritzen naiz, baina ez beti korrika. Gaur ere adibidez, bizikletaz aritu naiz. Debatik Mutrikuko Kalbariora joan naiz, eta han bizikleta utzi eta mendira pare bat aldiz igo naiz, oinez. Gero, berriz bizikleta hartu eta Lastur aldera joan naiz, eta basoko bideetatik itzuli naiz herrira. Ia bi ordu egin ditut horrela.

Eta bihar hobeto banago, korrika arituko naiz, ordu bat edo bi. Astean egun pare batez bizi-bizi ibiltzen naiz. Azkar. Gorputza apur bat behartzen, egurra ematen. Asteburuan, berriz, irteeretako bat luzea egiten dut. Mantsoago ibiliz baina kilometro gehiago egin ez. Bizikletan egun pare bat egiten ditut astero, eta beste egun pare baten kiroldegira

IRENE SARRIONANDIA

MENDI KORRIKALARIA

Badira 40 urte mendian zehar korrika hasi zela. Mende erdiarekin Zegama-Aizkorri lasterketan parte hartu zuen lehenengoz, eta 70 urterekin mendi lasterketa gogorrenak egiten jarraitzen du.

joaten naiz; multifitness egi-
ten dut han.

**Osasuna beti izan duzu la-
gun?**


Bai, orain arte ez dut izan arazo handirik. Behin, orkatil-
an min handia hartu nuen,
eta beldur nintzen ea apurtu
edo okertu nuen... baina ari-
neketan segi eta lasterketa
amaitu nuen. Minduta izan
nuen bi-hiru hilabetez, baina
ez nintzen gelditu. Ez dut
gauza larririk izan. Izan nuen
minbizia ere, baina ez zen la-
rria izan. Ebakuntza bat egin
zidaten, baina ezer ere ez.
Handik lau egunera oinez ari
nintzen, eta laster hasi nin-
tzen korrika. Minbiziarekin
ari nintzela, sesioak hartzen,
behin esan zidaten makina
hondatu egin zela eta bi egu-
netan ez joateko. Hori baliatu
eta eskiatzera joan ginen, Ga-
varnie aldera.

**Alabarekin ere aritzen zara
entrenatzen, eta lasterketa
batzuetan.**

Bai. Hasieran ni nintzen au-
rretik joaten zena, eta bera ni-
ri segika. Orain bera da ni bai-
no hobeto dabilena, eta
esaten diot aurretik joan eta
bere kasa joateko. Baina gus-
tuko du nire martxan jarrai-
tzea. Bi ume ditu eta urte ba-
tzuetan ezin izan du nirekin
ibili, baina orain berriz mar-
txa hartu dio eta gustura ari-
tzen gara biok.

**Hemen baratzean ere sartuko
dituzu ordu batzuk.**

Ortuko lanak egiten ditut he-
men, egonean egon ere bai,
irakurtzen eta. Goizean ordu
pare bat korrika eginez gero,
leku atsegina da arratsaldea
pasatzeko, luzaketa batzuk
egin, tai txi ariketak... Deneta-
rik egiten dut hemen.



Andoni CANELLADA | FOKU

«Izan nuen
minbizia ere, baina
ez zen larria izan.
Ebakuntza bat egin
zidaten, baina ezer
ere ez. Handik lau
egunera oinez ari
nintzen, eta laster
hasi nintzen
korrika»



Irene Sarrionaindiari buruzko “Aurrera” dokumentala, mundu osoko jaialdietan ikusgai

Bilboko Mendi Film jaialdian eskaini
ostean, sarean da ikusgai Irene Sarrio-
nandiaren ibilbidea laburbiltzen duen
“Aurrera” dokumentala. Bere iloba Mi-
kel Peña Sarrionandiak filmatua, ger-
tutik jarraitzen du izebaren kirol ibil-
bide oparoa. Gertuko zein urrutiko
irudi ederrez hornitua, izebak aurrez
aurre kontatu zizkion Mikeli mendian
korrika aritzeko grina eta pasioa. «An-
boton gora korrika drone batekin gra-
batutako irudiak Kanadako jaialdi ba-
tean ere erabili dituzte, eta pozgarria
da hori», kontatu digu Irenek berak.
Eta GAUR8rako egindako elkarrizke-
tan jasotako pasarte batzuk ere ikusiko
dituzu dokumentalean. «Fenomena!»
esaten dioten pasarte gogoratzen du
berak, eta benetan ikustekoak dira Iza-

bako Camille Extreme mendi lasterke-
tako irudiak ere.
Behin baino gehiagotan deitu izan
diote telebistatik elkarrizketak egiteko,
edo toki ezberdinetan hitzaldiak ema-
teko, baina berak nahiago du, apal, be-
re txokoan lasai-lasai jarraitu. Ingu-
ruan korrika. Pirinioetan gozatzen.
Edo familiarekin oporretan. Horrega-
tik pozgarria da GAUR8ko irakurleei
hitzok eskaini izana, bere bizitza la-
burbiltzen duen elkarrizketa honetan
aletu dituen gogoetak partekatzea, be-
re ilusioak eta ametsak arratsalde
eguzkitsu batean kontatzea.
Nazioarteko hainbat zinema jaialdi-
tan ikusi da “Aurrera” dokumentala,
eta Izaban antolatzen duten Ukerdi
film festibalean lehen saria jaso zuen

iazko abenduan. Baina munduan ere
hainbat jaialditan parte hartzeko auke-
ra izan du. Italiako Palermo eta Mila-
noko festibal entzutetsuetan –Sport
Film Festival eta Milano Montagna
Festival–, Peruko Inkafest ezagunean
edota udazkenean Ingalaterran egingo
den Kendal mendiko film jaialdian.
Mikel Peña Sarrionandia errealiza-
dorearen lanak, bere izebaren bizipe-
nak kontatzeaz gain, Euskal Herriko
mendietako irudi ederrak eta Zega-
ma-Aizkorri edota Camille Extreme
mendi lasterketetako giroaren berri
ematen digu. Orain Naiz.eus atarian
(GAUR8) ere ikusgai dago zazpi minu-
tuko iraupena duen dokumentala,
Irene Sarrionandia korrikalariaren
berri mundu guztiak izateko.